

Mondragon Unibertsitateak eta BACek (negozioak azeleratzeko zentroak) tituludun langabe ekintzaileak bilatzen dituzte

2016/02/08

“Gazte ekintzaileak bilatzen ditugu... etorkizuna elkarrekin eraikitzeko!”
Goiburu horrekin Mondragoneko BACek (Business Acceleration Center) eta Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoak abian jarri dute Etorkizuna Elkarrekin Eraikiz! proiektuaren bigarren edizioa: E3! proiektua.

E3! proiektuak kontuan hartu du gazte langabe asko dagoela unibertsitateko prestakuntza tekniko handia dutenak eta ekintzailetza-esperientziak protagonizatzen direnak. Proiektuak, Europako Gizarte Funtsaren babesaren bidez, ekintzailetzarekin konprometitutako dauden euskal enpresak ditu oinarrian. Horretarako, enpresok oinarri teknologikoa duten negozio berrien proiektuak proposatu dituzte, esparru horretan garatzeko. Gainera, enpresek, hautagaiak aukeratzeko parte hartzeaz gain, pertsona sustatzaileak hartuko dituzte beren baitan.



Babeslea:



Baldintzak

Proiektuan parte hartzeko, hautagaiak langabeak izango dira, eta izena emanda izango dute Gazte Bermearren Sistema Nazionalaren Fitxategian. Horretaz gain, 16 urte baino gehiago eta 30 baino gutxiago izango dituzte eta unibertsitateko titulu ofiziala edo erdi zein goi mailako LHko titulua izango dute. Baldintza horiek betetzen dituzten Euskadiko gazte guztiek parte hartu ahal izango dute.

Hautagaiak enpresek hautatuko dituzte, curriculumak aztertuz eta elkarrizketak eginez. Gainera, pertsona ekintzaileak enpresek kontratatuko dituzte, eta kontratatu dituzten enpresetan garatuko dituzte proiektuak.

Hautatuek proiektuari sei hilabetez arduraldi osoa eskaintzeko konpromisoa hartuko dute, eta ordainsari ekonomikoa jasoko dute. Gainera, sustatzaileen lana enpresa baten instalazioetan garatuko dute, pertsona senior batek, tutoreak, gainbegiratuta

Azkenik, proiektuaren aurrerapen partzialak eta azken proiektua aurkezteko saioak egingo dituzte, prozesuan inplikaturik dauden enpresetako eta erakundeetako ordezkarien aurrean.

Mondragoneko BACen eta Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoaren ustez, ekimen horri esker, gazteek esperientzia eta gaitasuna lortuko dute benetako ekintzailetza-esperientziak protagonizatuz; negozio berrien ekintzailetzarekin konprometitutako enpresetan sartuko dira; negozio berriei ekiteko kezka eta pasio bera duten beste pertsona batzuk ezagutuko dituzte; eta batzuetan beren karrera profesionala birbideratzeko aukera izango dute, etorkizuna duten enpresa-ekimenetan kolaboratuz.

E3! Proiektuak Europako Gizarte Funtsaren finantzaketa du Euskal Herriko Gazte Enplegurako Programa Operatiboaren (2014-2020) esparruan, zeina Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak kudeatzen duen.

E3! ekimenean parte hartzeko prest dauden gazteak bilatzeko prozesua abian da, eta martxoaren 15ean amaituko da. Interesa dutenak bidali curriculuma e3.mgep@mondragon.edu posta-helbidera edo deitu 943739714 zenbakira.

